

AIARALDEA *hemen*



FRAILEBURU:
Duela ehun urte Angel Sopeñak Fraileburu eskalatu zuen, euskal eskaladaren mugarrria 18-19 or.

HEZKUNTZA GEHIGARRIA:
Haur Hezkuntzako eta Batxiliergoko aurrematrikulazio kanpaina



Urduñar bat nazien bandoan

AIARALDEA 10-11
Gero eta familia gutxiagori banatzen zaie janaria eskualdean
Laguntza Elkarreak Amurrioko 95 familiei banatu izan dizkie elikagaiak orain arte

LEZAMA 12-13
Legez kanpoko armategia polizia ohi baten eskuetan
Ezker Abertzaleko familia baten etxea tirokatu zuen polizia nazional ohia epaitegira

KULTURA 14-15
Artea Etnografia Elkarreak 40 urte bete ditu aurten
1980ko hamarkadan herriko ondarea babesteko egitasmoa abiatu zuen gazte talde batek

KIROLA 20
Hugo Muñozek lidergoari eutsi eta Aiarako Birako txapela jantzi du
Antolakuntzak kadete mailako kirol probaren oso balorazio positiboa egin du



Zure txanda da. Araba egin.

2025eko Arabako aurrekontu parte-hartzaileak

Batu

Erabaki



Egin dezagun Araba

araba álava
foru aldundia diputación foral

Angel Salas Larrazabal: Demokraziak kondekoratutako nazia

Angel Salas argazkiaren erdian, agur militarra egiten. **Kutxa artxiboa**

Espainiako Gobernuak konpromisoa hartu du Angel Salas Larrazabal militar urduñarrari demokrazian emandako kondekorazioak kentzeko. Nor izan zen kolpista hau, Otxandioko harakina izendapena jaso zuena eta Sobietar Batasunaren inbasioan parte hartu zuena Hitlerren armadarekin?



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Gorka Elejabarrieta EH Bilduko senatariaren eskariari erantzunda, Espainiako Gobernuak hautua hartu du Angel Salas Larrazabal militar urduñarrari 1991n emandako kondekorazioak kentzeko, Memoria Historikoko Legea jarraiki. Ez da urrats aintzindaria izan, Urduñako Udalak 2016an egin baitzuen hori eta Otxandioko herriari, gainera, barkamena eskatu zion bere hiritarrak eragindako sarraskiagatik.

Gauzak horrela, nor izan zen Angel Salas Larrazabal? Berez,

urduñar hau militar falangista, afrikanista eta kolpista izan zen, eta naziekin borrokatu zen ukondo ukondo Sobietar Batasunaren inbasioan.

Militar afrikanista

Salas Larrazabal artilleroa izan zen bere ibilbide militarren lehenengo urteetan, baina 1927an aireko armadan sartu zen. Unitate horietan Afrikako kanpaina kolonialistetan —Saharan, Ifnin eta Smaran, adibidez— parte hartu zuen, 1936an Estatu Kolpea sustatu zuten militar garrantzitsuenek bezala, hala nola; Emilio Mola, Francisco Franco, Gonzalo Queipo de Llano... Horregatik, hain zuzen,

afrikanista izendapena jaso zuten eta Joseba Sarrionandiak *Moroak gara behe laino artean?* liburuan azaldu zuenez, sailkapena ez zen garrantzirik gabekoa. Izan ere, militar horiek herri marokorren eta amazigharen kontrako praktika odoltsuaketa krudelak jarri zituzten abian, gerora Gerra Zibilean errepikatzen. Esaterako, Salas Larrazabalek, Francok bezala, Asturiaseko iraultzan protagonismoa izan zuen 1934ko urriko iraultzaren errepresio gordinean.

1936ko estatu kolpea

1936ko uztailearen 18ko eskuin muturreko generalen estatu kolpeak Madril harrapatu

zuen Angel Salas Larrazabal, eta urduñarrak zalantzarik gabe Errepublikaren kontra matxinatu ziren militarrekin bategin zuten. Iturri ezberdinetan arabera, Mola, Franco eta Queipo de Llanoren arteko lotura egin zuten lehen une horietan. Dena den, militarrek ez zuten denbora asko behar izan Otxandioko historia beltzengan bere izena idazteko.

Otxandioko bonbaketa

Gerra uztailearen 18an hasi bazen, lau egun beranduago Salas Larrazabal Agoncilloko aerodromotik ateratu zen beste Breguet XIX hegazkin batekin, zehazki, Jose Muñoz Jimenezek gidatzen zuten aparatuekin

batera. Bi pilotuek Otxandiora jo zuten eta han ikusi zuten jendetza zegoela. Izan ere, herriko jaiak ziren.

Xabier Irujo historialaria genozidioan aditua da. Ameriketako Estatu Batuetan ematen dituzten klaseak, Nevadako unibertsitatean, eta Euskal Herrian Gerra Zibilean gertatutako bonbaketen ikerketa sakona egin du, bereziki, Gernikako kasuan. Berak egindako zabalpen lanari esker eta garaiko lekukotzak jasota, zalantza izpirik gabe adierazi daiteke ekintza erabat kriminala gauzatu zutela bi hegazkin frankistek. Hain zuzen, ikusita Otxandioko Magdalena plazan milizianoak zeudela, pilotuek

1936

1941

1974

Uztailearen 18ko altxamendu militarrekin bat egin eta lau egunera Otxandio bonbardatu zuen Salasek. Guztira 61 lagun hil ziren bertan

Gerra Zibila bukatuta, Dibiso Urdinarekin Sobietar Batasunaren kontra borrokatzea jo zuen Hitlerri fidelotasuna zin egiten ostean



Franco hiltzean, bi eguneko Buruzagitza, Juan Carlos I.-ri eman arte

Andikona plazaren gainean hegan egin zuten ordu erdiz. Han ari ziren festetako ospakizunak egiten eta militarrek keinuak egin zizkioten kabinatik jendea, batzeko, nagusiki haurrak. “Hegaldia altuera baxuan egin zuten, hortaz, bazekiten azpian zeudenak zibilak eta gehienbat umeak zirela”, ziurtatu du Irujok.

Otxandiarrek ez zuten etorriko zenaren susmorik. Alde batetik, aurreko egunetan zerua zeharkatu zuten hegazkinek eskuorriak bota zituztelako. Bestetik, Euskal Herrian ez zelako inolako bonbaketarik gertatu aurretik.

Salas Larrazabalek, ordea, bazekien zer zuen esku artean, eta behin jendea bilduta, bonbardatu —400 kilo lehegailu baino gehiago biltegitatu ahal zuen hegazkinak— eta metraillatu zituen. “Ordu erdiz luzatu zen eraso eta militarrek bazekiten zer egiten zuten. Breguet XIX hegazkinek horrelako operazioak egiteko balio zuten eta, metro gutxira hegan egin zuten, ikusi ahal izan zuten zer gertatzen ari zen eta noren kontra. Ekintza guztiz kriminala izateaz gain, koldarra ere izan zen. Magdalenan milizianoak zeuden, baina horiek armak zituztenez, nahiago izan zuten herritarrak sarraskitu”, argudiatu du Irujok.

61 hildako, 24 adingabe

Bonbardaketak irudi lazgarriak utzi zituen Otxandion: gizakien zatiak, ume ugari hilda, dozenaka zauritu... Historialariak ez dira guztiz ados jartzen biktimen zerrendari dagokionez. Batzuek uste dute hildakoak 84 izan zirela, baina Xabier Irujok Zigor Olabarriaren datuak hartzen ditu erreferentziatzat: 61 lagun. Hau da, 45 zibil, 24 adingabe —haurrak eta nerabeak—, bost miliziano, lau soldadu eta identifikatu gabeko beste zazpi pertsona.

Nazien aginduetara

Gerra Zibilean jo eta su aritu ondoren —inork baino gehiago

egin zuen hegan urte horietan—, Angel Salas Larrazabalek bat egin zuen División Azularekin eta Sobietar Batasunaren inbasioarekin bat egin zuen indar naziekin, Adolf Hitlerri fidelotasuna zin egin ostean. Urrian Moskuko frontean sartu zen bere eskuadrillarekin eta urtebete baino gehiago borrokatu zen Luftwafferekin batera. Gogoratu beharra dago gerraren fronte erabakigarriena han egon zela. 25 milioi lagun baino gehiago hil ziren eta nazien krimenen zerrenda amaigabea izan zen.

Testuinguru horretan, Armada Gorriaren aurka bost pilotukide galdu zituen Salas Larrazabalek eta 1942an itzultzeko agindua jaso zuen.

Hala ere, bere harremana Reich-arekin ez zen amaitu eta diplomatiko moduan aritu zen Bernan eta Berlinen. Berez,

han zegoen komunistek hartu zuten eta handik joan behar izan zen.

Erregearen zerbitzura

Bizitza osoa armada frankistan eman eta gero, 1974an Erresumako Kontseilari bilakatu zen erregearentzat eta, Franco hiltzean, biegunez hartu zuen Estatuko Buruzagitza, Juan Carlos I.-ri eman arte.

Erregeak berak izendatu zuen 1977an senatari eta hurrengo urtean, Konstituzioa onartuta, utzi behar izan zuen kargua.

1991n Juan Carlos I. eta Felipe Gonzalez estatu eta Gobernuko buruek ohorezko kapitain general gisa kondekoratu zuten, bere “aparteko meritu pertsonalen” ondorioz. Hau da, estatu kolpean, diktaduran eta Bigarren Mundu Gerran egindako krimenak aitortu eta zuritu zituzten.

Salas Larrazabal, hiltzaileak bonbekin eta hitzarekin

Angel Salas Larrazabal militar leinu baten kidea da eta bere bi anaiek (Ramon eta Jesus Maria) berak hasitako bideari jarraipena eman zioten. Izan ere, Angel Salas Larrazabalek airetik ezabatu bazituen hainbat bizitza, gauza bera egin zuten Ramonek eta Jesus Mariak liburuak baliatuta. Biek ala biek historia ikasketarik ez bazuten egin ere, Gerra Zibila “ikertu” zuten helburu argi batekin; frankismoaren krimenak eta bere biktimen oroitzapena ezabatzea. Ramonek horri ekin zion Nafarroako errepresioaren kasuan. “3000 lagun baino gehiago fusilatu zuten frankistek, hau da, Fronte Popularreko bozkatzaileen %10. Ramon Salas Larrazabalek, ordea, 700 baino ez zirela idatzi zuen”, argitu du Xabier Irujok. Jesus Mariaren lana ere zitala izan zen.

Hasteko, Angelen sarraskia Otxandion ekintza heroiko gisa deskribatu zuen. Horrez gain, Gernikako bonbardaketako biktima kopurua izugarri murrizteko liburuak idatzi zuen; 130. “Gutxienez 2000 dira Gernikan hil ziren herritarrak, horrelako gauzak idaztea delitua izan beharko litzateke”, aldarrikatu du Xabier Irujok.



Guda Zibilean Otxandio bonbardatu zuen Urduñarrak, eta 1941ean naziekin batera jo zuen Sobietar Batasunaren aurka. EITB; Jose Fiant; Francisco Franco Fundazioa

1991

2016

2024

Juan Carlos I.-ak eta Felipe Gonzalezek ohorezko kapitain general gisa kondekoratu zuten, bere “aparteko meritu pertsonalen” ondorioz



Urduñako Udalak Salas Larrazabali aitortzak ukatu eta otxandioarrei barkamena eskatu zien bonbardaketaren 80. urterrean

EH Bilduko eskariari erantzunda, Espainiako Gobernuak hautua hartu du Salasi emandako kondekorazioak kentzeko

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Angel Egaña gudariaren gorpuzkiak ekarriko dituzte igandean



Angel Egañaren gorpuzkiak Valladoliden. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Igande honetan Angel Egaña eusko gudaria eta frankismoak eraildako beste 198 errepresaliaturen omenezko ekitaldia egingo dute Valladolideko El Carmen hilerrian, 12:00etan. Helburua da guztiak oroitzea eta hangoen memorialean ehorztea. Aldiz, Angel Egañaren gorpuzkiak berre herrira itzuliko dira. Horretarako joko du Valladolidera Arrankudiaga-Zolloko udal ordezkariak zabalak, alkateak bane, Egañaren familiarekin. Egun horretan gudariaren gorpuzkiak jasoko dituzte eta Arrankudiaga-Zollon apirilaren 28an egingo diote omenaldi publikoa gudariari. Udalak nabarmendu du Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica de Valladolid (ARMHV) elkarteak egindako lana azken urteetan, horri esker frankismoaren errepresaliatuen hainbat hobi komun ireki dituzte eta, gainera, eraildakoak identifikatu dituzte, Egaña horien artean iaz. Hori baino lehen, 2021ean omendu zuten Valladoliden bertan eta bere herrian urrian izan zen aitortza.

Angel Egañaren biografia

Arrankudiaga-Zolloko Udalak berak zabalduko prentsa oharrean Angel Egañaren bizitzaren

berri eman dute. Egaña 1914ko otsailaren 22an jaio zen Arrankudiagan eta, 1935-1936ko erroldan, ama alarguna eta hiru neba-arrebekin batera bizi zen Otsantzar auzoko baserrian.

Estatu kolpe faxistaren aurrean, 1936an euskal milizian sartu zen Padura batailoiko Landarraga konpainian, teniente-graduarekin. Padura Batailoia Landarraga, Basauri, Ondarreta, Iberlanda eta metrailadoreen konpainietako hirurehun gudarik osatzen zuten eta hainbat frontetan hartu zuen parte: Elgeta, Ubidea, Gorbea, Durango, Amurrio eta abar. Baina, 1937ko martxoaren 31an eta apirilaren 1ean Gorbeia mendian izan ziren borrokek ondorio oso larriak izan zituzten gerora Angel Egañarentzat. Garaiko kronikak diotenez, Gorbeia ingurua euskal gudarien eskuetan zegoela, martxoaren 31ko gauean tropa faxisten IV. Brigadako erreketen Virgen Blanca tertzioak, gau iluna eta bandera faxista eta erreketea jarri zituzten bertan.

Apirilaren 1eko goizean Padura Batailoiko gudariak berriro eskuratu zuten Gorbeia Gurutzea eta bandera faxista eta erreketea kendu zizkieten etsaiei. Borrokaldir horretan alde bietako hildakoak izan ziren eta, faxisten al-

dekoen artean, Valladolideko barrutiko zalditeriako kapitan bat.

Bilbo kolpisten eskuetan erori zenean, 1937ko ekainean, Padura Batailoia desegin zen eta konpainia desberdinetan gelditzen ziren gudariak III. Dibisioko 156. Brigadara batu ziren II. Batailoia izenarekin. Santander alderaratz erretiratu ziren eta abuztuaren 23rako Santoñan zeuden. Armada kolpistak atxilotu eta, 24 milizianorekin batera, irailaren 25ean C-50/37 Auzian epaitu eta hamabi urte eta egun baterako presoaldira zigortu zuten. Baina 1937ko azaroaren 4an Valladolideko Cocheras de Tranvías presoaldira eraman zuten 10. Epaitegi Militarrek 1477/1937 sumarioa berriro aztertu eta abenduaren 31ko Gerra Kontseiluan epaitua izateko. Teniente-gradua izanik, Gorbeia borrokan hildako kapitan faxistaren heriotzaren ardura leporatu zioten Angel Egañari eta heriotza-zigorra kondenatu zuten. Argi ikusten da horrela ofizial kolpistaren heriotzaren mendeku gordinan izan zela Angel Egañaren aurkako epaia.

1938ko ekainaren 1ean jakinarazi zioten epaia irmoa zela eta ekainaren 2an, goizeko 6:30ean fusilatu zuten exekuzioetarako erabiltzen zuten Graveras de San Isidro lekuan. Ondoren, Valladolideko udal hilerriko 7. hobi komunean ehortzi zuten.

Aiara

CO2 hustibide berria sortu dute Murgan



Tokiko espezieak landatuko dituzte. Arabako Foru Aldundia

Testua
Aitor Aspuru Saez

CO2 hustubideen eginkizuna da isurketa mota horiek harrapatzea atmosferatik eta modu horretan aldatuta klimatikoari aurre egitea. Horrelako gune bat sortuko du Foru Aldundiak Murgako eremu degradatu batean, tokiko zuhaitzak zein zuhaixkak landatuta. "Kontrolatu gabeko betegarriak eta honda-

kin isurketak daude, eta haien ondorioz ingurune naturala degradatu egin da", azaldu du erakunde publikoak, "eta, horren ondorioz, landaredia desagertu da eta higadura arrisku larria dago zonalde horretan". Helburua betetzeko finantzazioaren %40 hartuko du bere gain Eskualde Garapenerako Europako Funtzak (EGEF). 59.986,92 euro balioko dute Murgan eta Arabako beste zazpi udalerritan.

Barraskiloen EGUNA

Larrañora ibilbide dinamizatua

EGUNA

APRILAK 20. ZAPATUA

ORDUTEGIA

11:00 LAMUZA PLAZAN

11:00 LARRAÑORA IBILBIDE DYNAMIZATUAREN HASIERA

12:00 BARRASKILOEN ETXEAREN BILA

13:00 BARRASKILOEN LERDENAREKIN ESPERIMENTAZIO GUNEA

* Plaza mugatuak
IZENA EMATEKO:
www.faktoria.eus
webgunean edo
722 22 75 32 (Aritz)
telefonora deituz.



Urduña

Erreklamazioak egiteko deia zabaldu dute, Renfeko tren berriak irisgarriak izan daitezzen



Maria Luisa Goikoetxeak eta Amurrioko pentsiodunek tren irisgarriak exijitu dituzte. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Renfeko tren zerbitzua hainbat albistoren ardatz izaten ari da azkenaldian. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak adostu dute jadanik aldirikoen kudeaketa EAEko erakundearen esku uztea.

Horrekin batera, Espainiako Gobernuak adierazi du bere asmoa dela bostehun tren berri erostea.

Erosketa horren data ez dute zehaztu, ezta unitateak nora joango diren ere. Horregatik, Maria Luisa Goikoetxea eta Itziar Molerres urduñarrek deia zabaldu dute erreklamazioak egiteko, egungo zerbitzua ez baita irisgarria. Gogoratu beharra dago Goikoetxeak aulki gorpilduna erabili behar duela eta Molerresen alabak ere mugikortasun arazoak dituela

gaixotasun arraro baten ondorioz. Gauzak horrela, euren aldarrikapen ekimenarekin azaleratu nahi dute Renfeko C-3 zerbitzuan irisgarritasun araudia ez dela betetzen eta tren berriak behar direla.

Tren berriak eta zaharrak
Aiaraldea Komunikabidea Renfe enpresako iturri sindikalekin mintzatu da balizko tren berri horiei buruz eta erantzuna izan da ez dakitela ezer, ez eskualdera helduko diren, ezta noiz egongo diren funtzionamenduan ere. Halaber, gogoratu dute orain arte C-3 linean jasotako tren "berriak" Bartzelona eta Madrilen kendu dituztenak izan direla, hara unitate berriak heltzean. Horrek esan nahi du C-3 lineara heltzen direnean, jadanik hamar edo hamabots urtez egon direla lanean hiriburu handi horietan.

Hain zuzen, hori da arazo teknikoak eragiten duten aldagaie-tako bat: makina zaharrak direnez, maiz ez dago piezari-merkatuan matxurak konpontzeko.

Protesta Amurrion

Maria Luisa Goikotexea eta Itziar Molerres urduñarrek egin-dako deiak oihartzuna izan zuen Amurrion. Martxoaren 25ean pentsiodunek euren as-teleheneroko elkarretaratzea baliatu zuten aldarri horrekin bat egiteko.

Tren geltokira jo zuten doze-naka lagunek, eta erreklama-zio orriak bete zituzten bertan. Hala ere, bakarra tramita-tu ahal izan zuten, ez zeudela-ko guztientzako orri nahikorik. Dena dela, horrelako ekimen gehiago egingo dituztela iragarri dute, eta herritar guztiei luzatu diete keak izapidetze-ko deia.

“Gure indar guztia jarriko dugu Gazte Eguna pozez beteriko eguna izan dadin”



Apirilaren 13an Urduñako 23. Gazte Eguna ospatuko dute. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako 23. Gazte Eguna antolatuko du Urduñako Gazte Asanbladak datorren apirilaren 13an. Iragan urtarrilean, belaunaldi berriekin loturak estutu eta indarberriturik ekin zioten hiriko gazteek Urduña astintzeari. Geroztik hainbat ekintza antolatu dituzte, eta larunbat honetan Gazte Asanbladaren urteko hitzordurik garrantzitsuenari helduko diote berriro ere.

“Gazte Eguna guretzat oso egun berezia da, ilusioz eta gogoz bizi dugun eguna da. Izan ere, urteetan zehar gure ahotsa aldarrikatze-ko aukera paregabera eskaini digu, eta gure borroka eta lana herriari aurkezteko aukera eman digu”, azaldu diote Gazte Asanbladako kideek Aiaraldea Komunikabideari. Gazteen iritziz, Urduñako mugimendu sozial eta kulturalaren parte garrantzitsua da udaberriko hitzordua; “horregatik, gure indar eta gogo guztia jarriko dugu Gazte Eguna elkartasunez eta pozez be-

teriko eguna izan dadin”. Egunean zehar ekintza ezberdin ugari pres-tatu dituzte, eta goizetik gauera lu-zatuko da Urduñako Gazte Eguna. Egunari hasiera emateko, hau-rrerentzako jolasak eta grafiti taile-rra antolatuko dute Foru Plazan. Eguerdian triki-poteoak alaituko ditu hiriko kaleak. Bazkari herri-koia egingo dute jarraian, eta baz-kalostea bingo musikatuarekin gi-rotuko dute. Arratsaldean ekitaldi nagusia egingo dute, eta eguna bo-robiltzeko musika eskaintza zaba-la taularatuko dute.

“Gustatuko litzaiguke jende guztiari gurekin eguna ospatze-ko gonbidapena luzatzea —adie-razi du Gazte Asanbladak—. Bai-na ez dugu gonbidapen hau baka-rrik egun horretara mugatu nahi; Urduñako gazteria urtean zehar egiten ditugun ekintzetan aktibo-ki parte hartzera gonbidatu nahi dugu ere. Gure indar eraldatzai-leak batuz, herriaren aldeko gau-za ugari egin ditzakegu. Jarraitu behar dugu herria lantzen etor-kizuna loratzeko”.

**DOAKO ETXEZ ETXeko ZERBITZUA:
URDUÑA, AIARA, AMURRIO...**

Okm produktuak · Garaiko frutak eta barazkiak
Egunero Iza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · [@frutadenda_selene](https://www.instagram.com/frutadenda_selene)

herriz herri

Laudio

Laudioko Gardeako industriaguneko hamazazpi enpresek osatzen dute Laudio Group taldea. 100kWko bi azpiegitura fotovoltaiko instalatzeko lanak abiatu dituzte berriki.

Arabako lehenengo komunitate energetiko industrialala osatu dute Laudio Group taldeko enpresek

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Jarduera industrialean diharduten hamazazpi enpresek osatzen dute Laudio Group enpresa elkarte. Gardeako industriaguneko sektore desberdinetako enpresa batzuek elkartzea erabaki zuten duela urte batzuk, bi arrazoi nagusik bultzatuta: industriagunearen degradazioari aurre egiteko eta enpresa txikien arteko elkarlana sustatzeko.

Bost enpresek ekin zituzten bideari. "Hasieran oso oinarrizko gauzak lantzen genituen lankidetzan —azaldu du Gorka Agirre Laudio Groupeko zuzendariak—. Lantzen genuen lehenengo gaitako bat zuntz-optikoarena izan zen. Industriadun Interneteko konexio berririk gabe geratzeko arriskua zegoen orduko hartan, hori dela eta, batzea erabaki genuen".

Laudioko Udalarekin bilerak egin ostean, zuntz-optikoa Gardeako fabriketaraino sartzeko lortu zuten. Aurrekari horri esker elkarlanean ekimen gehiago egin zezaketela ikusizuten enpresek. "Azken finean helburua hori da: elkarlanean aritu eta sinergiak sortu".

Proiektu gehiago

Industriaguneko enpresa desberdinen arteko sinergiak bilatzeko lan horretan, proiektu ugari lantzen ari dira. "Eskatu baino, enpresa txikiok ditugun ezinezkoak lantzen ditugu erakundeekin. Ditugun beharren inguruan informatzen ditugu. Izan ere, gu Michelin edo Guardian bezalako enpresa handien itzalean gaude beti", azaldu du Agirrek.

Dirulaguntza eta prestazio desberdinak lortzeko bidean ere, tokiko lantegiei laguntza eskaintzen dien ente-kolaboratiboa ere bada Laudio Group. "Dirulaguntza asko bideangaldu ditugu, hauek kudeatzen ez dakigulako. Elkarteari esker kanpo-finantzazio hori kudeatzeko gaitasuna izan dugu".

Administrazio Publikoarekin



Laudio Groupen jardunaren nondik norakoak aurkeztu zituzten iragan hilabeteetan. Aiaraldea.eus

lan egiteko orduan ere, indargunetzat jo dute tokiko enpresen batura. "Eskatu baino, enpresa txikiok ditugun ezinezkoak lantzen ditugu erakundeekin. Ditugun beharren inguruan informatzen ditugu. Izan ere, gu Michelin edo Guardian bezalako enpresa handien itzalean gaude beti", azaldu du Agirrek.

Azkenik, komertzializazioa errazteko estrategia bateratua diseinatu dute Laudio Groupeko enpresen artean. "Batasunak indar gehiago ematen digu —adieraiz du Agirrek—. Enpresa handiekin bilerak egiten ditugu eta Laudio Groupeko zerbitzuek eskaintza integratu

aurkezten diegu: instalazio elektrikoak, marketina, informatika lanak..."

Komunitate Energetikoa

Laudio Groupek garatutako azken egitasmoa jasangarritasun neurriak ezartzea izan da. Alor horretan karbono aztarna kalkulatzeari ekin diote taldeko enpresek, eta Arabako lehenengo komunitate energetiko industrialala sortu dute.

Abenduan izapidetu zuten ofizialki komunitate energetikoa. "Gaur gaurkoz taldeko bederatzi enpresa gaude izena emanda komunitate energetikoan".

"Gure asmoa da komunitate energetikoa hazten jarraitzea, eta taldeko enpresa gehiago batzea"

Hilabete honetan espero du Laudio Groupek Energiaren Euskal Erakundearen oniritzia jasotzea, eta horrekin batera azpiegitura fotovoltaikoaren instalazioari ekitea. Guztira 100kWko potentzia duten bi instalazio jarriko dituzte, eta honezkeror eraginkortasun azterketa burutu dute plaka fotovoltaikoak zein gainazaletan jarriko dituzten ebazteko.

Hasiera batean, bederatzi enpresa horien urteko kontsumoaren %20-25 eguzki-plaketatik jasotzea aurreikusten dute. "Gure asmoa da komunitate energetikoa hazten jarraitzea, eta taldeko enpresa gehiago batzea".

Laudio

Laudioko Udalak Aretako gasolindegia berriko lanak geldiarazi ditu



Elkarretaratzea egin zuten bizilagunek obrak bertan behera uztea eskatzeko. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Baimenik gabeko obrak egiten ari zirela egiaztatu ostean, lanak bertan behera uztea eskatu dio Laudioko Udalak Gasteiz kaleko gasolindegia eraikitzen ari den enpresari. Tokiko gobernua egiaztatu duenez, Aretako orubean burutzen ari diren lanak ez datoz bat emandako lizentziarekin. Gauzak horrela, Udalak bide eman die Aretako bizilagunek azken egunean egindako salaketari. Orain, behin obrak geldituta, lanen ikuskerak egingo du administrazio publikoak, bizilagunek

salatutako arau-hausteak egiaztatzeko.

Udalak zabalduko oharrean azaldukoaren arabera, lur-sail horretan gasolindegia bat jartzeko proiektua 2020ko espediente batekin hasi zen. Proiektua geldirik egon zen, harik eta 2023an berriro martxan jarri eta proiektua garatu aurreko prospektzio-lanak egiteko lizentzia eskuratu zen arte. Orduetik hona bizilagun askok aurkeztu dituzte proiektuaren kontrako alegazioak, azpiegituraren bideragarritasuna zalantzan jarriz.

Tokiko gobernua hainbat hirigintza- eta lege-bideren bideragarritasun tekniko azter-

tzeari ekingo dio, "inguruko bizilagunentzat emaitza egokia goa bilatze aldera".

Bilera auzokideekin

Gasolindegia proiektuak Aretan sortu duen ezinegona bertatik bertara ezagutzeko asmoz, Tokiko Gobernuak batzar informatiboa deituko du Aretako bizilagunekin. Hala, proiektuari buruzko informazioa ere jarri du herritarren esku. Bien bitartean, mobilizazioekin hasi dira Aretako herritarrek. Martxoaren 26an dozenaka lagun batu ziren Gasolindegiko lanen aurrean, obrak bertan behera gelditzea eskatuz.

Palestinar Lurraren egunean ekimena egin dute Laudioko zenbait eskulturatan



Ekimen herritarrek Israelen aurkako boikoterako deia luzatu du. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Palestinar Lurraren Eguna ospatu zena martxoaren 30ean, halako egun batez, 1976an herri palestinarrek greba orokorrera jo zuten Israelgo okupazio-indarren palestinar lurren lapurreta salatuz. Protesta horretan Israelgo indar armatuek zazpi gazte palestinar hil zituzten.

Efemeride hori baliatu nahi izan zuen Laudio-Palestina herri ekimenak, Israelek palestinarren aurka darabilen "garbiketa etnikoa" salatuz. Laudio herriguneko zenbait eskulturatan ekimena egin dute irudiak odoleztatutako zapiekin estalita. Ekintza honekin Israelek mende erdiz eusten dion "kolonizazio eta genozidio" prozesua salatu nahi izan dute herritarrek.

"Gauzak horrela boikoterako deia berretsi egiten dugu Laudio-Palestina taldeak, eta inguruko erakunde publiko eta aka-

demikoei erregimen sionistarekiko harremanak eten ditzatela eskatzen diegu", adierazi zuten ekimena publiko plazaratu zuten bideoan.

Zehazki, EHUK eta Tel Aviveko Unibertsitateak iragan otsailean sinaturiko akordioak eta zibersegurtasun katedra salatu nahi izan zituen Laudioko elkartasun taldeak. CAF tren enpresa euskaldunak eta Eusko Jaurlaritzak Estatu Sionistarekin sinatutako merkataritza akordioak ere gogor deitoratu dituzte: "Israelek 75 urte daramatza nazioarteko lege guztiak urratzen eta oinarrizko giza eskubide guztiak zapaltzen".

Honakoa ez da Laudio-Palestina azken hilabeteetan burututako ekintza bakarra izan. Otsailaren 24an ekimen jendetsu eta ikusgarria egin zuten Laudioko Herriko Plazan, Gazako zerrendaren aurkako erasoak salatuz. Geroztik, Palestinaren aldeko monolitoa dago ikusgai Lamuzako Plazan.



Kontsultatu gure programa hemen:
mirengorrotxategi.eus



JUANTXO LÓPEZ DE URALDE
Elkarrekin Podemosko Eusko Legebiltzarrerako hautagaia

AUKERATU EZKERRA

BOZKATU
elkarrekin
Podemos Alianza Verde



herriz herri

Aiaraldea

Gordexolako errepideko konkorrak kentzea eskatu diote Artziniegako eta Aiarako alkateek bertako Udalari



20 konkorrak daude guztira BI-2604 errepidearen Gordexolako zatian. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gutuna bidali diote Artziniegako eta Aiarako alkateek Gordexolako Udalari, "Bizkaia zeharkatzen duen BI-2604 errepideko konkorrak kentzen hasteko dituzten planei buruzko informazioa" eskatzeko. Joseba Vivancok eta Pruden Otegi uste dute prozesua ezin dela gehiago atzeratu, eta badela garaia Udal horrek "badenak pixkanaka ezabatzeari" ekiteko.

Bi gobernuburuek nabarmendu dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiak bere garaian idatzitako planaren hiru faseak beteta daude dagoeneko. Horregatik, "azken urteetan hartutako konpromisoak betetzea" eskatu diote Gordexolako Udalari.

Vivancok eta Otegi gogorazari dutenez, 2008an hasi zen arazoa: "Gordexolako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak 2005ean errepide zatiaren titulartasuna laga ondoren, erabaki zuen badenak ipintzen hastea, hemeretzi guztira, eta ordutik ia bere horretan jarraitzen dute". Gainera, salatu dute tokiko erakundeak beste konkorrak bat jarri herri duela, "eta horrek dagoeneko eragin ditu errepide hori Bizkaira eta, bereziki, Bilbo Handira joateko erabiltzen duten askoren lehen kritikak".

Bi alkateek nabarmendu dute 2008tik hona herritarren pro-

testa ugari egon direla konkorraren aurka, eta baita salaketa judizial bat ere. Horrez gain, aipatu dute Eusko Jaurlaritzak 100.000 euroko dirulaguntza eman ziola Aiaraldera itsatsita dagoen udalerrinari, konkorrak ezaba zitzen. Gertakari segida luzea ekarri du gaiak azken hamarkadan, bi alkateen aburuz: "Arabako Foru Aldundiaren bitartekaritza, Bizkaiko Batzar Nagusietarako interpelazioak, bilerak Gordexolako Udalarekin berarekin, anbulantzien eta larrialdien sektoreko txostenak elementu horiek zailtzen jartzeko, hedabideetan oihartzun handia izan duten kanpaina publikoak (Mateo Lafagua Artziniegako bizilaguna buru zuena, adibidez)... Baina Gordexolako Udalak ez du bere jarrera pixka bat mugitu urte hauetan". Ildo horretan, Vivancok eta Otegi ohartarazi dute abiadura murrizteko elementu horiek "kalte nabarmena" egiten dietela bertatik igaro behar diren gidari eta txirrindulariei. Baina badaude arrisku handiagoak pairatzen dituztenak ere: "anbulantzia Bilbora eramane behar dituztenen osasuna eta bizitza ere arriskuan jartzen jarraitzen dute, eta gaur egun, hogeit hamar konkorrak zeharkatzen dituzte. Arrisku hori, asko salatu den arren, duela hamabost urte baino gehiago zegoen bezain indarrean dago oraindik".

Okondo

Bi gazte kontratatuko ditu Okondoko Udalak lorezaintza lanak egiteko

Testua
Aitor Aspuru Saez

30 urte baino gutxiagoko bi gazte kontratatuko ditu Okondoko Udalak, herriko hiri-ingurunea, parkeak, lorategiak zein bideak mantendu eta hobetzeko.

Gazteetako batek lorezaintza funtzioa beteko du, eta besteak lorezaintza laguntzailearena.

Interesdunek apirilaren 19ra arte dute lan eskaintzetara aurkezte-

Hautatutako gazteei urtebeko kontratua egingo diete lanaldi osoan

ko epea. Lorezaintza erdi-mailako, goi-mailako edo batxilergoko prestakuntza-ziklo bat izan behar du. Lorezaintza laguntzaileak, al-diz, nahikoa izango du oinarriko lanbide heziketa, profesionaltasun-ziurtagiria edo DBHko gradua izatearekin.

Biek ala biek Lanbiden altan emanda egon beharko dute enplegu-eskaintza gisa, eta Gazteen berme-sisteman ere egon behar dira.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA AIARALDEAN FORMAKUNTZA ZIKLOA

DOAKO FORMAKUNTZA OSTIRALETAN, 17:00//20:00 FAKTORIAN (LAUDIO).

#Apirilak 12
#Maiatzak 3
#Maiatzak 31
#Ekainak 14

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ekarpena lurralde garapen ekonomiko eta komunitarioari.

- Garapen neoliberala vs. Eraldatzailea
- Zer dira ekonomia eraldatzaileak?
- Kooperatibismoa eta lanaren burujabetza (autoeraketa)
- Kooperatibismo komunitarioa
- Ekonomia Feminista eta Zaintzen Ekonomia
- Herri Kooperatiben aurkezpena

Ziklo ekonomiko osoaren eraldaketa: Burujabetza materialak

- Ekoizpena (elikagaiak, energia, ura...)
- Kontsumoa eta distribuzioa.
- Finantza
- Etxebizitza
- Jabetza kolektiboa.

Komunitatearen lanketa eta interkooperazioarako gakoak

- Komunitatearen garrantzia.
- Komunitatearen lanketa.
- Interkooperazioa. Zer da? Zein motakoa?
- Elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioa.
- Udalgintza eraldatzaileerako aukerak.

Iraunkortasun ekonomiko eta teknikorako gakoak

- Inbertsioen finantzaziorako aukerak eta moduak.
- Ezagutza juridiko-teknikoa, bai proiektuetan, bai administrazioan.



babestutako edukia

Izan Amurrioko kide diren Calzados Urrutia eta Gorobel Crossfit negozioek elkarrekin dituen onurak azaldu dituzte. “Energia, pasioa eta esperientzia” dira aurrera begira sinergiak eraikitzeko dituzten osagai nagusiak.

“Orain inoiz baino beharrezkoagoa da Izan Amurrioko kide izatea”



Joseba Etxebarria eta Isabel Urrutia, Izan Amurrioko bazkideak. Aiaraldea.eus

Izan Amurrio erakusleihen erraldoia da. Horrela definitu dute Calzados Urrutiako Isabel Urrutiak eta Gorobel Crossfit-eko Joseba Etxebarriak: “Herriko gainerako negozioetara ez ezik, bestelako erakundeetara ere hurbiltzen zaituena”. Erabateko aholkularitza eta laguntza eskaintzen die negozioei Amurrioko elkarrekin, are gehiago, Interneteko erosketak inoiz baino gehiago hazi diren une honetan.

Calzados Urrutia merkataritza elkarrekin hastapenetan egon zen negozioa da. Santos Urrutiak eta Isabel Alonsok zabaldu zuten zapata dena 1936an, eta, belaunaldiz belaunaldi gaur egunera arte iritsi da. Gorobel Crossfit, ordea, duela bost urte jaio zen, Laudioko industriaguneko pabiloi batean. Orain, Amurriora

jauzi egin eta gimnasio berria zabalduko dute, Reforretik gertu, kirol-esparruari dimentsio berria eskainiko diote.

Izan Amurrioren baitako bi negozio hauek energia, pasioa eta esperientzia irudikatzen dituzte, eta elkarlanerako duten grina, herriko ekimenen mesedetan jarri nahi dute.

Izan Amurrioren historia

1970eko eta 1980ko hamarkadan herriko merkataritza kalean biltzen ziren, ohiko errekaduak egitean kalean elkarrekin gurutzatzen zirenean. Bilerak informal horietan adosten zituzten, besteak beste, abuztuko bigarren hamabostaldian itxi edo ez, ordutegiak... Garai horretan ez zegoen aparteko inizatibarik sustatzeko beharrik; izan ere, komertzioak ondo funtzionatzen zuen eta

Amurrio erreferentia zen inguruko herrietan ere.

Elkarrekin 1984. urtean ekin zion bere bideari. Hainbat merkatarik Kultur Etxean bilerak egin zuten, eta, Arabako Merkataritza Ganbararen laguntzaz, Amurrioko Merkataritza Txiki eta Ertainen Elkarrekin sortu zuten.

“Nire aita bertan izan zen, elkarrekin sortzeko lanetan”, azaldu du Calzados Urrutia saltokiko Isabel Urrutiak “Amurrioko merkataritza interesak babesteko eta komertzioa sustatzeko ekintzak garatzea ziren elkarrekin helburu nagusiak. Hastapen urte horietan ekimen interesgarriak egin ziren”. Komertzio guztien artean kotxe bat erosi izana du bereziki go-goan Urrutiak; “komertzio guztien artean dirua bildu, kotxeak erosi eta zozkatu egin zen”.

Urteak joan urteak etorri beste dinamika batzuk ere garatu ziren. “Merkataritza-gune handien sorrerak eta herriko komertzioaren apaltzeak bultzatuta, bestelako ekimen batzuk garatzeko beharra jarri zuen mahaigainean: bezeroentzako erosketak txartelak, deskontuak, kanpaina bereziak... Une horretatik aurrera elkarrekin beste dimentsio bat hartu zuen, eta tekniko batek hartu zuen honen gaineko ardura, saltzaileoi laguntzeko”.

Elkarrekin beharra

“Orain inoiz baino beharrezkoagoa da Izan Amurrioko kide izatea. Negozio berri bat zabaldu eta ekitera bazoaz, ezinbestekoa da. Izan Amurrio bezeroarengandik hurbil jartzen zaituen tranpolina da. Errealitate bera bizi duten beste mer-

katari batzuekin elkartzeko eta lanerako beharrezkoak diren tresna berriak martxan jartzeko aukera ematen dizu”, aldarrikatu du Joseba Etxebarriak.

Horren adibide ona da Izan Amurriora batu den azken negozioa: Gorobel Crossfit. Kirol egitasmoak duela bost urte ekin zion ibilbideari Laudion, eta orain Amurrioren bigarren gimnasioa zabaldu berri dute. Jauzi horretan Izan Amurriora batzea izan da egin duten lehenengo gauzetako bat. “Elkarrekin funtsezkoa da —azaldu du Gorobel Crossfit-eko Joseba Etxebarriak—. Laudion hasi berriak ginela pandemiak harrapatu gintuen, eta horri esker asko ikasi genuen. Uleritu genuen negozio desberdinen artean elkarrekin hil ala bizikoa zela. Gure burua puzzle handi bateko pieza bezala irudikatzen dugu, komunitate baten parte gara, hori dela eta APILLera batzea erabaki genuen”. Filosofia horri jarraituz, Amurriora iristean Izan Amurrioren batzera jo zuten zuzenean.

Sinergia berriak

Izan Amurrio, Apymca bere garaian, saltokiak batzeko tresna bezala sortu zen. Denborarekin ostalaritza establezimenduak ere batu ziren elkarrekin, eta orain da garaia bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten negozioei ere atea irektzeko. Bide horretan aitzindariak dira Gorobel Crossfit-eko kideak. “Laudion merkataritza elkarrekin batu ginenean aitzindariak izan ginen, eta gure gisako negozioak elkarrekin hurbiltzeko ahalegina egin dugu. Amurrioren ere ahalegin berarekin jarraituko dugu, Izan Amurrioren batzerekin diren negozioen aniztasuna handituz”. Sinergia berriak eraikitzeko lanetan daude Amurrioko komertzioak: “elkarrekin hastapeneko negozioen arteko harreman eta joera natural horiei eustea ezinbestekoa da”.



Gero eta familia gutxiagori banatzen zaie janaria Aiaraldean

Gasteizen du biltegia Arabako Elikagai Bankuak, eta bertatik banatzen ditu elikagaiak lurralde osoan barrena. **Gasteizko Udala**

Laguntza elkartearen desagerpenarekin, nabarmen murriztu da Arabako Elikagai Bankuaren presentzia Aiaraldean. Une honetan, Artziniegako zortzi familiari baino ez dizkiete banatzen elikagaiak.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

2.249 kilo jaki banatu zituen Arabako Elikagai Bankuak martxoan. Lurralde osoko familietara iritsi ziren, banaketak egiteaz arduratzen diren elkarteen bidez. Familia horietako 103 izan ziren Aiaraldekoak: 95 Amurriokoak eta zortzi Artziniegakoak. Amurriokoei Laguntza elkarreak banatu zizkien elikagaiak. Baina elkarre horretako kideen azken banaketa izan zen martxokoa, hoi urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki baitute, Udalarekin hainbat gorabehera izan ostean.

Gauzak hala, apirilean 103tik zortzira jaitsiko da Arabako Elikagai Bankuaren laguntza jasotzen duten Aiaraldeko sendien kopurua. Artziniegako zortzi familia horiek Udalaren bitartez jasotzen dituzte produktuak. “Udaleko kide bat dator Gasteizko biltegirara hilero, familia horiei dagozkien jakiak jasotzera”.

Hala azaldu dio Jose Andres Gabilondok Aiaraldea Komu-

nikabideari. Bankuko lehen-dakariordea izan da hainbat urtez, eta bera arduratzen da Udalekin harremana izateaz.

Izan ere, tokiko erakundeetako gizarte zerbitzueta-ko langileak arduratzen dira bankura jotzen duten herritarrei ebaluazioa egiteaz, elikagaiak jasotzeko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko. “Duela lau zapabost urte hasi ziren Europar Batasunetik esaten elikagaiak jasotzen dituzten herritarrak gizarte arloko profesional baten ebaluatu behar zituela”, azaldu du Gabilondok. Bere hitzetan, Udalak dira horretarako prestatuen dauden erakundeak, eskura dituztelako herritarren datu sozioekonomikoak.

Nabarmendu duenez, Amurriokoa da salbuespen bakarra. Bertako Udalak ez du bere gain hartu nahi izan ebaluazioak egiteko lana. “Bere garaian eurekin bildu ginen eta ezetz esan ziguten, argudiatuta ez zutela elikagai bankuarentzat lan egingo”, oroitu du Gabilondok. Eta erabiltzaileen balorazioen gaia da, hain zuzen,

Laguntza elkartearen itxiera eragin duena. Horri lotuta, Amurriokoa bezalako elkarre funtzioa aldarrikatu du Gabilondok: “Elikagai bankuak ez du produkturik banatzen. Herrietako elkarre edo erakundeak dira lan hori egiten dutenak. Baina elkarre ezin duten euren kabuz ebatzi janaria nori eman edo nori ez, horretarako behar dira profesionalak eginiko ebaluazioak”.

Gabilondok oroitu duenez, Laudion duela lau zapabost urtera arte ere banatzen zituzten elikagaiak. “Udala arduratzen zen erabiltzaileen balorazioak egiteaz, eta boluntarioak bideratzen zituen banaketak antolatzeke”. Baina, gero, dinamika hori bertan behera uztea erabaki zuen tokiko erakundeak. Gabilondok ez daki zehazki zergatik gertatu zen hori, baina imajinatzen du Udalak beste moduren batean beteko zituela familia erabiltzaileen beharrianak. Izan ere, Arabako Elikagai Bankua ez da oinarritzko beharrianak asetzen aritzen den elkarre bakarra, badaudelako zeregin horre-

Une honetan, Artziniega da Arabako Elikagai Bankuko elikagaiak jasotzen dituen Aiaraldeko udalerri bakarra. Amurrioko Laguntza elkarreak martxoan egin baitzuen azken banaketa, bere ibilbidea amaitutzat emanez

tan aritzen diren bestelako erakundeak ere (Caritas, Gurutze Gorria...). “Jendea artatua dagoen bitartean, berdina zaigu non laguntzen dieten. Oxala desagertzea, hori da gure azken helburua, herritarrak hobeto artatuko dituztelako ongizate zerbitzu publikoek”.

Etorrizuna ate joka

Itxiera agian ez, baina al-daketa ugari bai etorriko direla laster elikagai bankuetara, Europar Batasunaren eskutik, berriz ere. Datoren hilabeteetan jarriko dute martxan Europako Gizarte Funtsaren Oinarritzko Programa. Horren bidez, Gurutze Gorriak erosketa-txe-keak emango dizkie horren beharra duten familiei, oinarritzko produktuak zuzenean erosteko aukera izan dezaten, dohaintzan jasotzera itxaron beharrik gabe. Hala ere, adingabeak euren kargura dituzten familiek soilik jaso ahalko dute laguntza hori. Beraz, aldaketak aldaketa, erronkak bere horretan jarraituko du: inor atzean geratzen ez dela ziurtatzea.

2,2
tona jaki
banatu zituen
Arabako
Elikagai
Bankuak
martxoan

95
familiari
banatu dizkie
Amurrioko
Laguntza
Elkarteak
Arabako
Elikagai
Bankuak
emandako
produktuak,
martxora arte

8
familiek
jasotzen
dituzte
Arabako
Elikagai
Bankuko
produktuak
hilero
Artziniegan

Ateak itxi ditu Laguntza elkarteak, Udalarekin izandako tira biren ostean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Martxoaren 12an jakinarazi zuten Laguntza elkarteak hilabete horretan emango zuela amaitutzat bere hogeituroko ibilbidea. Aste Santuaren ostean egin zuten azken elikagai banaketa, Arabako Elikagai Bankuak emandako produktuekin.

Itxieraren erabakia orain hartu duten arren, afera atzeragotik dator. 2021ean hasi zen dena, Arabako Elikagai Biltegiak baldintza berria jarri zuenean mahaigainean: laguntza jasotzen zuten pertsona guztiak gizarte arloko profesional baten ebaluazioa izatea, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen zizutela ziurtatzeko.

“Elikagai biltegiaren arabera, Udaleko Gizarte Zerbitzuek betetzen dute funtzio hori, Amurrion salbu”, azaldu dute Laguntzako kideek, “alkatetzak proposatu zigun norbait kontratatzea funtzio hori betetzeko, kostea diru-laguntza baten bidez estaliz, eta horrela funtzionatu dugu 2023ko bigarren seihilekoan”.

Baina, nabarmendu dutenez, gauzak aldatu egin dira gobernu aldaketa egon denean eta Udaleko gizarte arloa PSE-EEren eskuetara pasa zenean. Laguntzako kideek salatu dute, 2024rako aurrekontua aurkeztu egin zutenean, Udalak uko egin ziola hori ordaintzeari eta arloaren ardura duen zinegotziak “jarraira harroputza eta enpatiarik gabekoa” izan duela eurekin.

Udalaren erantzuna

Udalak, bere aldetik, erantzun du ez datorrela bat “gizar-

te-zerbitzuei eta arloko ardura-dun politikoei buruz egindako salaketekin”, eta ziurtatu du ez diola inoiz utzi Laguntza elkartearekin lankidetzan egoteari.

Era berean, tokiko erakundeak nabarmendu du alternatiba bat proposatu ziola elkarteari: erabiltzaileen ebaluazioaren zeregina Gurutze Gorriaren eskuetara pasatzea, erakunde horrek badituelako hori egin dezaketzen profesionalak.

Laguntza elkarteko kideek erantzun dute hori ideia ona izan zitekeela, baina gaineratu dute ez dutela balizko aukera horri buruzko informazio gehiagorik jaso, Udalari jakinarazi zioten arren, alternatibarik ezean, martxoan egingo zutela azken elikagai banaketa.

Tokiko erakundeak, bere aldetik, nabarmendu du elkartearen itxieraren berri sare sozialen bidez jaso duela, ez zaiolako bide ofizialez jakinarazpenik iritsi.

95 familia

Polemikak polemika, Laguntzako kideek nabarmendu dute ez dutela Udalarekin ika-mikan sartu nahi, baina gaineratu dute euren erabakiak ez duela atzera bueltarik.

Gauzak hala, ikusteke dago zer gertatuko den elkartearen eskutik elikagaiak jasotzen zizuten 95 familiekin. Udalak ziurtatu du horri begira hausnartzen eta lanean jarri dela, eta ez duela “inor atzean utziko”.

Aiaraldea Komunikabideak Laguntza elkarteko zein Udaleko ordezkariak elkarrizketatu ditu, eta Aiaraldea.eus atarian irakurri daitezke biak osorik.



Laguntzako hiru kide elkarteak duen arropa biltegian. Aiaraldea.eus



LAURA FERNANDEZ

UDALEKO ONGIZATE SAILEKO ZINEGOTZIA

“Udalean hausnartzen eta lanean ari gara, atzean inor ez uzteko”



MERTXE GUILLEN VAQUERA

LAGUNTZA ELKARTEKO KIDEETAKO BAT

“Errealitatea da apirilean 95 familiek ez dutela elikagairik jasoko”



elkarlan asesores



www.elkarlanasesoria.com

2023
Errenta-aitorpena.

Zure aitortzen esku onetan

30 urte baino gehiago enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

erreportajea



Legez kanpoko armategia polizia ohi baten eskuetan

Ezker Abertzaleko familia baten etxea tirokatzeagatik atxilotu zuten polizia nazional ohiak baimenik gabeko bederatzi arma, gerra materiala, ia lau kilo bolbora, lauhun bala baino gehiago eta dozenaka arma erabilgaitz zituen etxean.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Bost urte eta erdi igaro ondoren, lezaman gertatutako tiroketaren epaiketa izango da ekainaren 11n. Hain zuzen, polizia nazional ohi bat eseriko da akusatuen aulkian Ezker Abertzaleko familia baten etxearen kontra tiro egiteagatik, familiako hiru kide barruan zudelarik. Edonola ere, akusazio partikularrak egingo duen eskaeran, kalteak izango dira gutxienez —hilabeteko espetxe zigorra—. Berez, zazpi urte eta 6 hilabeteko eta beste sei urteko espetxealdia exijituko dituzte armak alde batetik eta lehergailuak bestetik biltzeagatik. Izan ere, hainbat arma eta lehergailu topatu zituen Ertzaintzak bere etxea miaztean.

Fiskaltzak bide beretik joko du, baina kalifikazio bakarrean batu

ditu biak eta gerra armak gordezteagatik zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra eskatuko du. Halaber, 10 urte eta erdiz arma baimena debekatzea ere jaso du.

Gertakariak

2019ko urtarrilaren 6an, bere militantziagatik ezaguna den Ezker Abertzaleko familia batek pistola baten tiroa jaso zuen etxeko sukaldean, bi senide gela horretan zeudenean. Hori 10:30ak aldegarertatu ondoren, biertzain bertaratu ziren, 9 milimetroko bala jaso eta ikerketa abiatu zuten.

Akusatuaren bertsioa

Tirokatutako etxebitza ikuskatu ostean, polizia nazional ohiaren etxera joan ziren ertzainak, hau da, tiroa jaso zen lekutik 400 metro eskasera. Akusatuak azaldu ziren Ertzaintzako kideei tiroa entzun zuela, baina bera ez zela

egilea izan. Ertzainek suzko armarik ote zuen galdetuta, akusatuak baietz erantzun zuen eta armairu batean zuen eskopeta bat erakutsi zien. Hala ere, pistolak gordetzeko baliatzen diren bi kutxa ikusi zituzten agenteek. Une horretan inputatua erdian jartzen saiatu zen, baina ertzainek sumatu zuten antzeko kalibreko hainbat munizio zegoela eta konfiskatu zuten.

Horrez gain, horman beste hiru arma luze identifikatu zituen Ertzaintzak, eta baita zenbait obus ere. Akusatuak berak emanda, ertzainek 9 milimetroko 191 bala eraman zituzten. Horietako 27 lege kanpokoak ziren: hiruk mozketak zituzten, sei manipulatuak zeuden (jaurtigairik gabekoak ziren, baina norbaitek bala jarri ziren) eta beste 18 punta hutsekoak ziren (munizio mota hori ez da legala).

Atxikoleta eta aitortpena

Urtarrilaren 7an polizia nazional ohi bisitatu zuen Ertzaintzak berriro eta horrek bere bertsioari eutsi zion, berretsiz ez zuela zerikusirik tiroketarekin.

Ordea, urtarrilaren 10ean ertzain gehiago agertu ziren bere etxean eta akusatuak onartu zuen tiroaren egile zela eta gertakari buruzko hainbat azalpen eskaini zituen. Jarraian, modu boluntarioan, agenteak gidatu zituen erabilitako armaren ezkutalekura: bere etxean zegoen zulo natural bat, harriekin estalitakoa. Arma Star markako 9 milimetroko pistola luzea zen, eta akusatuak ez zuen hori izateko beharrezko baimenik.

Gauzak horrela, agenteek atxilotu zuten eta deklarazioa hartu zioten. Gainera, etxebitza prezintatu eta gero miatu zuten, atxilotuarekin baimenarekin.

Armategia etxean

Etxea miaztean, Ertzaintzak arma mordoa topatu zuen barruan, eta horiek guztiak izateko baimenik ez zuen polizia nazional ohiak. Gainera, batzuk manipulatu zeuden, eta beste batzuek ez zuten identifikazio markarik.

Munizioaren aldetik, kalibre ezberdineko lauhun bala zenbatu zituzten agenteek; hori bai, zenbatzeari utzi baino lehen, askoz gehiago aurkitu zituzten eta.

Hori guztia gutxi balitz, hiru kilo bolbora baino gehiago konfiskatu zituen Ertzaintzak, eta gerra material ugari (bonbak, besteak beste). Azkenik, erabilgaitz bihurtutako arma pilo ere aurkitu zituzten.

Epaietan tiroa jaso zuen familiak eta ertzainek ez ezik, lehergailuetan adituak diren Ertzaintzako eta Guardia Zibileko zenbait pertok parte hartuko dute.

erreportajea

Munizioak




186
bala 9 mm-koak

27
legez kanpokoak



3'8 kg
bolbora



75
kartutxo 7,62 x 51 mm-koak



69
kartutxo 7 eta 8 mm-koak



11
kartutxo 7x57mm-koak



11
kartutxo 38 kalibrekoak



50
kartutxo 6,35 kalibrekoak



100
kartutxo 22LR kalibrekoak

Arma erabiliezinak

(bakarra erabiliezintasun ziurtagiriarekin, 15 serieko zenbakiarekin, 6 identifikaziorik gabe)

12
pistola semiautomatiko 9 mm

2
errebolber 32 kalibrekoak

1
errebolber 7,65 mm

1
errebolber 44 kalibrekoa

2
errebolber 38-SPL kalibrekoak

4
subfusil

1
karabina

1
eskopeta

1
Mauser zerraile fusila

17
baioneta

Munizio ugari zenbatu gabe eta 115 kartutxo gehiago identifikatu gabe.

+Arma ezberdineko 131 pieza
(fusilenak gehienak)

Pistolak



9 mm pistola STAR serie zenbakiarekin



11 milimetroko pistola identifikaziorik gabe



7,65 mm pistola STAR serieko zenbakiarekin



44 kalibreko errebolberraren identifikaziorik gabe



38 kalibreko errebolberraren identifikaziorik gabe



38 kalibreko errebolberraren identifikaziorik gabe



38 kalibreko SPL errebolberraren identifikaziorik gabe



32 kalibreko errebolberraren identifikaziorik gabe



43 kalibreko Remington karabina

Gerra armak



Hegazkin bomba bat, D1E
(kargarekin)

8 mortero lehergailu, 50 mm eta 81 mm

11 artilleria lehergailu

4 kanoi lehergailu, 59 mm

1 fusil granada eta hegazkin lehergailu

kultura



40 urte Artziniegako memoriaren alde borrokan

1980ko hamarkadan Artziniegako gazte talde batek herriko dozenaka objektu biltzeari ekin zion. Eraldaketa prozesuan murgilduta zegoen bizimodu eta gizarte baten lekuko ziren altxor horiek guztiak, eta “etnografiaren Guggenheim museoa” sortu zuten hauek babesteko. Berrogei urteren ostean, Artziniega Museoak eta Artea Elkarteak bizi-bizirik jarraitzen dute.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Artea Etnografia Elkarteak berrogei urte bete ditu aurten. Artziniegako ondarea eta historia berreskuratzeko ahalegin titani-koa egin du elkarteak azken lau hamarkadetan. Benjamin Respaldiza, herriko apaiz ezaguna, izan zen egitasmoaren bultzatzailea; *alma mater* elkarteko gain-erako kideen hitzetan.

“1980. urtean gutxi gorabehera piezak biltzen hasi ginen. Trantsizio garaia zen hura; landa eremuari lotutako bizimodutik bizimodu industrializatuagora ari ginen jauzia ematen. Iraganeko kontu asko desagertzeaz zeuden, eta Artziniegako zenbait herritarren artean ondare eta memoria guzti hori kontserbatzeko beharra ikusi genuen”, azaldu dio Benjaminek Aiaraldea Komunikabideari.

Santutegiko beheko solairuetan, ukiuluetan hain zuzen ere, biltzen zituzten materialak. Herriko ganbara eta baserrietan galtzear zegoen ondare etnografiko hori guztia biltzarekin batera Artea Etnografia Elkarteak sortu zuten 1984an, santutegiko museo txikiaren gidaritzaz arduratuko zena.

“Benja ez zen ohiko apaiza, jende gazte asko erakartzeko ahalmena zuen. Karisma handiko pertsona zen, ikuspegi humanista zoragarriarekin. Bere ahaleginak erakarritak, askok eta askok ekin genion etnografia elkartearen parte hartzeari”, goraipatu du Teresa Lafraguak.

“Hasieran erotzat hartzen gin-

tuzten material guzti hori Santutegian biltzeagatik. Artziniegako auzokide askok ez zuten ulertzen zertarako balio zuen ondare hori gordetzeak”, adierazi du Lafraguak. Guardia Zibilaren mesfidantza ere sortu zuen ekimenak, eta patruilak behin baino gehiago agertu ziren Santutegiko atarian zelatan. Gazte talde horren egitasmoak, ordea, segituan lortu zuen herritarren begirunea: “erakutsi genuen egiten ari ginena Artziniegako bizilagun guztientzat mesedegarria zela”.

Lehenengo urte horietan egingandako lana izugarria izan zen: piezak bildu, zaharberritu, erakusketak antolatu, hitzaldiak...

Espazio bila

2004an lekualdatu zuten museo-ko ondare guztia Santutegiko gela txikitik gaur egungo kokapenera, baina horra iristeko bidea ez zen erraza izan. Eraikina kongregazio erlijioso batek gidatutako eskola izan zen XVIII. mendetik, 1970. urtean eskola publikoa bilakatze-ko lagatu zuten arte. 1980ko hamarkadan hutsik eta abandonaturik geratu zen eraikina.

Artziniegak Imanol Aretxabala zuen alkate orduan. Aretxabala buru-belarri aritu zen lanean eraikina udalerraren esku utzi eta erabilera berri bat emateko. “1985. urtean guztiz hondatuta zegoen eraikina. Jende asko Udalera etortzen zen kexaka, eta guk behin eta berriz errepikatzen genien eskola zaharra apezpikutzarena zela”, azaldu du Aretxabalak. “Abandonatutako erakinean basakeriak egin ziren ere. Jendeak sua pizten zuen areto nagusiaren

barruan, rock talde batzuek entseatzeko zuten bertan. Hori ikusita eraikina nola edo ahala salbatu behar zen”, gogoratu du Jose Luis Zurbituk.

Gauzak horrela, eraikinaren lagapena lortzeko bide luze bati ekin zion orduko alkateak. “Arazo eta oztopo asko gainditu behar izan genituen. Batetik bestera ibili ginen eraikinaren lagapena lortzeko. Hasieran esaten ziguten Madrilek konpetentzia batzuk eman behar zizkiola Eusko Jaurlaritzari; konpetentziak lortu ostean, eskolaren gidaritzaz zera eman fundazioa desegin behar izan genuen... Urte biziak izan ziren, baina istorio polita da hori lortzeko egin genuen lan guztia”, azaldu du Imanol Aretxabalak.

Eraikina artziniegarren esku egotea hasiera besterik ez zen izan; bertan museoak ateak ireki ahal izateko lan handia zegoen oraindik aurretik. “Nik hasieratik ikusi nuen espazio hori museoarentzako izan behar zela, baina eraikina egokitzeko diru asko inbertitu behar zen —azaldu du Aretxabalak— Udaleko arkitekto batek lehen plano batzuk diseinatu zituen, eta, ez dakit nola, dokumentu horiek Arte Etno-

grafia Elkartearen eskutara iritsi ziren. Proiektua egingarria zen eta abiapuntu horretatik hasi ginen lan guztia planifikatzen”.

Museo berria

“Hasieran eraikin berriaren beheko solairua erabili nahi genuen, baina ireki aurretik txiki geratu zen espazio hori”, azaldu du Paki Ofizialdegik, Arte Etnografia Elkarteko egungo lehendakariak. “Santutegi azpian 200 metro koadro genituen, eta lokal berri hau ikustean oso handia iruditu zitzaigun, beheko solairuarekin soilik nahikoa izango genukeelakoan geunden —azpimarratu du Jose Luis Zurbitu diruzainak—. Kultur Etxea bertan egitea pentsatu genuen, espazioa soberan zegoela ikusita. Bilduma atontzen hasi ginenena, ordea, ikusi genuen eraikin guztia hartu beharko genuela”.

Gaur egun museoak erakusketak 2.000 metro koadro baino gehiago ditu orotara. Objektuak gaika antolatuta dituzte, ofizioa. “Gure premisa nagusietako bat beti izan da objektuak ez genituela sakralizatu behar. Oso balioetsuak izanda ere, bitrintetik kanpo jarri nahi genituen ikusgai,

garai batean okupatzen zuten espazioa erreproduzitzen”, aldarrikatu du Benjak.

Oztopoak bidean

Berrogei urte hauetan, ordea, bidea ez da beti erraza izan. Elkarre guztietan bezala jendearen parte hartzea ez da beti berdina izan. Museo berriak ateak ireki aurretik ere, elkarre desageritzeko zorian egon zen bertako kideen interesek unereren batean edo bestean bide desberdinen bat hartu zutelako. Enbate horiei guztiei eustea lortu zioten, ordea, eta horrela aldarrikatu du Teresa Lafraguak: “Ezin genion horrelako proiektu bati hutsik egin”.

Unerik zailenak 2018an bizi izan zituzten. Diru faltak museoaren ateak ixtera behartu zituen elkarteko kideak. Herritarrek orduan inoiz baino ozenago aldarrikatu zuten Artziniegak zuen museoaren beharra. “2019ko udan Foru Aldundiko eta Udaleko hauteskundeen ostean, berriro eseri ginen, eta museoaren etorkizuna bermatzeko bilerak hasi genituen, hein handi batean Ana del Valek egindako lanari esker”, argitu du Ofizialdegik. Zailtasunak zailtasun museoaren etorkizuna

“Museo honek izan duen zortetik handiena da elkarre fidela eta nekazina izan duela atzetik”

bermatuko zuen akordioa sinatu zuten 2022an, elkarreari arnasa emanaz. “Museo honek izan duen zortetik handiena da elkarre fidela eta nekazina izan duela atzetik”, azpimarratu du Benjak.

40. urteurrena

Elkarre berrogei eta museo berriak hogeiturogei urte dituzte aurten, eta ospakizunak urte osoan antolatuko dituzte. “Ez da urteurren egun zehatzik egongo, —azaldu du Ofizialdegik—, baina hilabetero urteurrena antolatzeke ekintzaren bat egingo dugu”.

Herri-jolasen tailerra edota ogi-oratzea dira honezkero antolatutako ekintzetako batzuk. Maiatzean, museoak piano handia baliatuz, Patricia Sesar sopranoaren kontzertua eskainiko dute eta udako solstizioa jai berezia aurreikusten dute ere.

Ekintza horiei ohiko txerri-boda edota museo-bizia ekimenak gehitu behar zaizkio. Urte amaierarako ere prestatu dituzte kontuak. Artziniegako punto fabrika zahar bateko materiala berreskuratu dute, eta behin behineko erakusketa aretoan atonduko dute lantegi horri buruzko espazioa.



Ezkerretik eskumara: Benjamin Respaldiza, Paki Ofizialdegi, Jose Luis Zurbitu, Teresa Lafragua eta Imanol Aretxabala. Aiaraldea.eus

kultura

Kexaako monumentu multzoan amaitu dute *Historias de Halloween* pelikularen grabaketa



Hiru astez luzatu da filmaren grabaketa. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan astean amaitu zuten *Historias de Halloween* pelikularen filmazioa. Gasteizen eta Arabako beste hainbat zonaldeetan aritu dira grabatzen; Kexaako monumentu multzoan, besteak beste. Bertako estilo gotiko eta errenazentistako eraikinak baliatu dituzte Arimen Gauean girotutako filmaren kokapen moduan.

Kiko Prada da ikus-entzuzkoaren zuzendaria. Bere lehen film luzea da, aurretik beste hainbat proiektutan aritu den arren, hori bai, ekoizle gisa. Hala ere, ibilbide oparoko aktoreak jarri dira kamararen aurrean, besteak beste; Macarena Gomez, Christian Thomas eta Javier Botet.

Botet bereziki ezaguna da nazioarteko hainbat filmetan (*REC*, *El último viaje del Dementer*, *Slender man*, *Mama...*) agertu delako munstro zein mauiak hezur haragitzen, goitik behera makillatuta. Hala ere, pelikula honetan badirudi ez dela itxuraldatuta agertuko, antigoalekoen saltzaile baten papera egingo baitu. Bere gurasoekin urbanizazio batean bizi den haur baten istorioa kontatzen du filmak. Umea "ziria edo saria" egitera aterako da Arimen Gaueko arratsaldean, eta Gasteizen erdigunera iritsiko da. Bertan ezagutu-

ko du Botetek antzetzutako pertsonaia, antigoalen dendan.

Estreinaldia urriaren 31n

Grabaketak amaituta, filmaren postprodukzioan sartuko dira orain, baina erlojupean aritu beharko dira edizio lanak egiten, filmak baduelako dagoeneko estreinaldi data jarrita: urriaren 31n plazaratuko dute, Arimen Gauean, hain zuzen.

Grabaketak Aiaraldean

Kexaan grabatutakoa ez da azken hilabetean Aiaraldean filmatutako ikus-entzuzko bakarra. Julio Medem zinemagile donostiarrek Urduñan eta Artziniegan grabatu ditu *Ocho* bere azken film luzeko zenbait eszena. Pelikulak zortzi sekuentzia planotan kontatuko du emakumezko eta gizonezko baten istorioa 90 urtetan zehar, 1931n hasita, eta, hain zuzen ere 1930. hamarkadako pasarteak grabatu dituzte Aiaraldean.

Antzele protagonistak Ana Rujas eta Javier Rey izango dira. Rujas *La mesías* (Los Javis sortzaileen azken teleaioan) agertu da protagonismo handiarekin. Reyk, aldiz, *Fariña* telebista saioko pertsonaia nagusia hartu zuen bere gain. Julio Medemek zuzendari berri onenaren Goya saria jaso zuen 1993an, *Behiak* filmagatik.

Lagun eta senidez inguratuta jaso du Raisa Alavak Urrezko Guk Saria



Raisa Alava Guk saria jasotzeko ekitaldian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Ibarra musika audioarrak (Raisa Alavaren eskuetan dago jadanik aurtengo Urrezko Guk Saria. Amurriok bere ibilbidea omendu du ilustrazioaren esparruan (Tour-aren kartela, New Yorker eta Bloomberg argitalpenetan ilustrazioak) eta aiararrak gusturajaso zuen aitortza, lagunez eta senidez inguratuta. Martxoaren 16ko ekitaldia Belgorri taldearen abestiekin hasi eta amaitu zen eta bideo baten bitartez azaldu

Ilustratzaileak bere lagun eta senideentzako esker hitzak izan zituen

zituen Alavak bere erreferenteak (Mortadelo eta Filemon, The Simpsons, Roald Dahl...) eta bere bizipenak. Bide batez, aipatu zuen *Rick and Morty* teleaioa sortu zuen estudioarekin lan egitea dela bere ametsa. urte oparoa ari da izaten honakoa ere Raisarentzat. Izan ere nazioarteko ekimenen afixak diseinatzeaz gain, bere lehen komikia argitaratu du ere. Aiararrak Angel Camino Guk eskulturaren sortzailea ekarri zuen gogora eta, halaber, aipatu zuen ilustrio berezia egin ziola Amurrio Harroren murala egin izanak.

Orbitaz kanpokoak II diskoa sareratu du Iñigo Ibarrak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Ibarra musika audioarrak (Al Infierno en Goitibera taldean ibilitakoa, besteak beste) disko berria argitaratu du Internet bidez. Zehazki, bere aurreko lanaren bigarren parte da eta Orbitaz kanpokoak II izendatu du. Aurreko diskoetan bezala, berak bakarrik jotzen du musika tresna guztiak, bateriak salbu, azken hauek programatu baititu. Generoari dagokionez, ez du rock musika baztertu, baina bestelako soinuak jorratu ditu: "rock gogor, psikodeliko, stoner, sludge, doom, instrumental, post rock edo-

Ibarrak rock soinu gordinagoak landu ditu: stonerra, sludgea, dooma, instrumentala, post rocka edota space rocka...

ta space rock estiloak". Abesti gehienak 2020an sortu zituen eta bi 2022an. 2023an ekin zion denak nahasteari eta orain sareratu ditu, kanta bakoitza irudi batekin osatu eta gero. Bi plataformetan plazaratu du lana. Alde batetik, Bandcamp-en entzun daiteke. Hor badago aukera .wav euskarrian doan deskargatzeko, dagokion laukian 0 euro jarrita. Hala zehaztu du Ibarrak bere Bestetik, YouTubeko kanala ere prestatu du musikariak. Jadanik hiru lan aurkeztu ditu sortzaile audioarrak bakarlarri gisa. Punk doinuarekin hasi zen eta gero eta soinu astunagoa lantzen ari da.

babestutako edukia

“

Politikarekiko
konfidantza
berritzeko
aukera
daukazu.

ALDAKETA
DA ORAIN*

Bozkatu
Vota

ehbildu

kirola



Euskal eskaladaren totema

Martxoaren 16an ehun urte bete ziren Angel Sopena Oruetak Fraileburu mendia eskalatu zuenetik. Eskalada horrek mugarria jarri zuen euskal mendizaletasunaren historian, eta mendeurrena ospatzeko txangoa antolatu dute Txarlazo eta Mendiko Lagunak taldeetako kideek.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arrastariako bailararen gainean altxatzen da Gorobel mendilerroko gailur enblematikoena. Otoitz egiten dagoen harrizko fraile erraldoi bat babiliztan, Tertangako zirkoaren jaun eta jabe da inguruko tonotrikk zorrotz eta menderagaitzena.

Eskalada gogoko duen orok du begiko. Izan ere, euskal mendizaletasunaren historiako mugarri goiztiarrenetako bat jarri zen bertan duela ehun urte: Euskal Herriko lehenengo eskalada.

Sopeñaren balentria

Duela ehun urte, 1924ko martxoaren 16an, Angel Sopena Oruetak Fraileburu mendia eskalatu zuen. Ordura arte menderaezina zirudien gailurrak, eta igoe-

rak zeresan handia sortu zuen Urduñan, eta euskal mendizaleen artean, oro har.

Sopena Club Deportivo Bilbao taldeko kidea zen. Euskal Herriko Mendizale Federazioak hilabete gutxi barru ekingo zion bideari, baina ordurako ugariak ziren alpinismo taldeak han-hemenka, tartean Sopeñaren klub bilbotarra ere. Ordurako ugariak ziren mendizaletasuna sustatzeko ekimenak, hala nola 1914an jaiotako, eta gaurdaino iritsi den, Ehun Mendien Lehiaketa.

Sopeñak puri-purian zegoen euskal mendizaletasunaren bigarren belaunladiarekin bat, alpinismoaren hastapenekin batera ezagutza teknikoetan sakondu ziohoana.

Aspalditik zuen begiz jota Angel Sopenak Fraileburu mendia. Igo ostean idatzi zuen eskaladaren kronikan, honela jaso zuen bertara igotzeko zuen motibazioa: "Mendiko jendeak fraideari buruz hitz egiten du, eta maiz joaten dira hara. Horrek larritu egin ninduen, eta beldur nintzen Club Deportivo loriatsuarena ez zen beste bandera batek hartuko ote zuen kargua haren gailurrean. Eta asmo horrekin abiatu nintzen 1924ko martxoaren 16an, kolosoaren oinarria".

Astebete lehenago ingurura bertaratu zen mendizale bilbotarra, igoera nondik eta nola egingo zuen erabakitzeko. Mailu batekin, iltze gutxi batzuekin, soka batekin eta Sopeñak berak diseinatutako altzairuzko palanka txiki batekin igo zen Frailearen bururaino. Eskalada zaila eta arriskutsua izan zela utzi zuen idatzita Sopeñak:

"Eskalada honen arrakastaren sekretua nire mugimendu bakoitza gidatu duen hausnarketa lasaia eta Jainkoari esker falta izan ez zaidan energia emaria izan dira. Horregatik, ohorea iruditzen zait alpinismo bizkaitarrak lortutakoa".

Balentriaren lekukotasuna Bizkaiko Mendien Lehiaketako txartel batean utzi zuen idatzia Sopeñak. Txartela zinkeko kutxatxo batean gorde eta tonorrean utzi zuen, harik eta beste eskalatzailer batek, So-

peñaren urratsak jarraituz, apirilaren 13an kutxa jaso zuen arte.

Euskal eskaladaren mugarrria

Angel Sopeñak Fraileburu igo izanak egundoko zalaparta sortu zuen euskal mendizaleen artean. Urduñan ere berebiziko oihartzuna izan zuen albisteak, eta urte luzez Pico Sopeña deitu izan zioten mendiari. Eskalada hura izan zen Euskal Herrian dokumentatutako lehenengoa, eta bide eman zion gaurdaino garapen izugarria izan duen kirol diziplinari. Angel Sopeñak berak eskaladaren bidea urratzen jarraitu zuen; 1930ean Asturiaseko Pico Urriellu eskalatu zuen, bertara igotzea lortzen zuen seigarren pertsonabilakatuta. 1933an, aldiz, Cervinoko Zmutt gandorra eskalatu zuen.

Eskaladaren garapen eta eboluzioaren lekuko izaten jarraitu zuen Fraileburuk. 1955ean Pedro Udaondo eta Arturo Fernandez eskalatzaileek hego-ekialdeko horma eskalatu zuten. Eskalada artifizialean igo zuten, eta Frailearen buruak osatzen duen sabaia A3ko zailtasuneko luze batekin gainditu zuten; zailtasun gogorra eskalada artifizialeko graduazioaren arabera.

Tontorrera bidean

Fraileburura igotzeko bidea Frailearen haitza eta Gorobel mendilerroa lotzen dituen arrailatik abiatzen da. Bertara iristeko belardi malkartsua eta irristakorra gainditu beharra dago. Bertatik harri mailaktu batzuk igo eta ertza ezkerretik jarraitu beharra dago. 60 metroko soka batekin luze bakarrean egin daiteke, baina soka motzagoekin ere igotzeko aukera dago, bidean dauden hiru bilguneak baliatuz.


Mendeurrena

Lehenengo eskaladaren efemeridea ospatzeko, Fraileburu mendira egin zuten txangoa iragan martxoaren 16an Txarlazo Mendi Taldeko kideek iragan larunbatean. Amurrioko Mendiko Lagunak Taldeko, Club Deportivo Bilbaoko eta Grupo Alpino Gallarragako mendizaleak ere batu ziren hitzordura. Ibilian zein ostean egin zuten bazkarian omendu zituzten Angel Sopeña eta euskal mendizaleatasunaren aitzindari izandakoak. Sopeñaren balentria euskal mendizaleatasunaren historiari buruzko Mendian Gora erakusketan bildu du EMMOA fundazioak. Amurrioko La Casonan dago ikusgai erakusketa, Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrenarekin bat eginez.

Duela ehun urte, 1924ko martxoaren 16an, Angel Sopeña Oruetak Fraileburu mendia eskalatu zuen. Ordura arte menderaezina zirudien gailurrak, eta igoerak zeresan handia sortu zuen Urduñan



Angel Sopeñaren erretratua eta tonotrrean utzitako txertela. Club Deportivo Bilbao



kirola

PILOTA

Andere Canalesek eta Olatz Zulaikak irabazi zuten Bizkaia Cup Gomazko Paleta Txapelketa



Finalaren ostean egindako argazkia. **Olgetan**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Martxoaren 15ean Bizkaia Cup Gomazko Paleta Txapelketa irabazi zuten Andere Canales eta Olatz Zulaika Olgetan klubeko jokalariek. 30-23 gailendu ziren finalean eta arerioak talde bereko lagunak izan ziren, Nahia Ugarriza eta Naroa Saez, alegia.

Canales eta Ugarriza orozkoarrek, Zulaika gasteiztarrek eta Saez aretarrak ibilbide luzea egin zuten finalera heldu arte. Izan ere, lehen mailan jokatu zuten, eta parte hartu zuten hamalau bikoteak bi taldetan banatu zituzten antolatzaileek.

Lehenik eta behin, ligaxka jokatu zuten eta partida bakarra galdu zuten bikote bakoitzak. Horrek eskubidea eman zien zuzenean fina-

lerdian egoteko, beste batzuk final laurdenetan lehiatu behar ziren bitartean. Olgetan klubeko kirolariek euren norgehiagoketan nagusitu ziren eta Sopelako pilotalekuan erabaki zen txapelketa.

Kluba oso pozik

Gasiteek osatzen duten klubak poztasuna adierazi du, lehen mailan eta promozio mailan ere kalitate izugarria erakutsi dutelako. Izan ere, promozio mailako txapelketa ez badute irabazi ere, bigarren, hirugarren eta laugarren postuak orozkoarrenak izan dira.

Dena den, denboraldiak aurrera egiten jarraitzen du eta Gravni zein Emakumezkoen Larruzko Pilotako VI. Bizkaia Paleta Txapelketan buru-belarri sartuta daude jadanik jokalaria.

FUTBOLA

Berdinketarekin amaitu zen Amurrio Club eta CD Laudioaren arteko derbia

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Gizonezkoen Ohorezko Mailako sailkapen orokorrean berdinduta iritsi ziren ostiraletan Amurrio Club eta CD Laudio aurrez aurreko norgehiagokara. Eguraldia lagun, eta Basarte futbol zelaia jendez lepo zegoela, giro paregabean jokatu zuten bi taldeek denboraldiko bigarren eskualdeko derbia. Joaneko partidako arantza kentzeko asmotan bertaratuko zen CD

Laudio Basartera. Izan ere, azaroan jokaturako derbian zuri-gorriek 2-3 galdu zuten Amurrio Cluben aurka.

Apirilaren 5eko partidaren oso maila pareatua erakutsi zuten bi taldeek, sailkapenean egoera berdinean daudenaren erakusgarri. CD Laudioak aukera argiak izan zituen, baina Amurrio Clubeko atezainak ondo eutsi zion egoerari. Markagailuan 0-0 bukatu zen norgehiagoka, eta merezitako puntu bana eraman zuten biek etxera.

TXIRRINDULARITZA

Hugo Muñozek lidergoari eutsi eta XXXIV. Aiarako Birako txapela janztea lortu du



Aiarako Birako liderrak Amurrioko podiumean martxoaren 24an. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Azken bi jardunaldiekin, amaierara iritsi zen martxoan azken aurreko asteburuan XXXIV. Aiarako Bira. Artziniegan eta Amurrioren izan ziren kadete mailako ia berrehun txirrindulari sailkapen orokorra iraultzeko ahaleginetan.

NorInver-Impalag taldeko Hugo Muñozek, ordea, indartsu eutsi zion birako lehenengo asteburuan lortutako lidergoari, eta, azkenean, berak jantzi zuen txapela.

Lehia bizia izan zen azken bi etapetan, eta Muñoz liderra aurreratzeko saiakerak ugariak izan ziren. Artziniegako lasterketan Samuel Sanchez-MMR Arcade taldeko txirrindulariek ahalegin handia egin zuten haien talde-burua, Martin Fernandez, sailkapen orokorreko lehenengo postuan jartzeko.

Azkenean, tropelak esprintean gurutzatu zuen helmuga lerroa eta Hugo Muñozek lehen postua mantentzea lortu zuen. Etapako garaipena,

aldiz, Samuel Sanchez-MMR Arcade taldeko Benjamin Novasturiarrarentzat izan zen.

Azken ahalegina

Amurrioko etapa 13 segundoko aldearekin abiatu zuen Hugo Muñoz liderrak. Tarte estu hori defendatzea zen liderraren eginkizun nagusia, eta aurreikusitako bezala lehia bizia izan zen.

Abiadura handiko lasterketan ihesaldirako saiakera ugari egon ziren. Azkenengo itzulian, Benjamin Novalek bakarrik hartu zuen helmugarako bidea. Novalen atzetik, minutu eta erdiko aldearekin, liderraren tropelak esprintean ebatzi zituen sailkapen orokorreko postuak, baina helmugarako 400 metro falta zirela, erorketa gertatu zen.

Epaileek denbora berarekin sailkatu zituzten bertan inplikaturako guztiak, eta horri esker Muñozek lidergoa mantendu eta txapela janztea lortu zuen.

Sailkapen orokorrean, Ion Egia Barañano izan da tokiko txirrindularirik onena. Lu-

yando Ganzedo taldeko kirolaria zortzigarren postuan sailkatu da, liderrarengandik 56 segundotara.

Balorazio positiboa

Aiara Birako antolakuntzak kirol probaren oso balorazio positiboa egin du: "Lasterketak izugarriko arrakasta izan du. Ibilbideengatik, garapenagatik eta korrikalariek erakutsi duten lehiagatik. Lasterketaren mailaren erakusgarri ona da, ibilbideen gogortasun guztiarekin, Bira osoaren batez besteko abiadura 40 kilometro ordura hurbildu dela".

Antolatzaileek sei jardunaldiak aurrera ateratzeko lan egin duten boluntario guztien ekarpena ere esker-tu dute: "Nabarmentzekoa da, halaber, ehun boluntario baino gehiagoko gizatalde baten eskuzabaltasunez egiten duen lan bikaina. Talde horren eginkizun bakarra izan da ahalik eta lasterketarik onena antolatzea, baliabide oso mugatuekin, txirrindulari guztiek goza dezaten, horiek baitira garrantzitsuenak".

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Apirilaren 24an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Clemente

Zorionak aitite, urte mordoak zurekin betetzeko irrikan!

Guren eta familia



Omaira

Zorionak Omaira, 40 urte eta Britney Spears baino sasoi hobean. Muxu eta besarkadak etxekeoen aldetik!

Etxekoak



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3				7	
8								
	6					1		
	1		7					2
3		4	8		5			9
								1
4		6					8	
		5				3	1	
			4			2		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Xabier Santxotenaren Agotak liburuaren zozketa egingo du komunikabideak

Xabier Santxotenaren Agotak liburu berriaren zozketa

Parte hartzeko: www.aiaraldea.eus atarian **Zozketa:** Apirilak 19, 15:00etan.

**QUICK PC
REPAIR**

Informatika argi eta erraz



**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

AITAREKIN NAGOENEAN

Egilea: Soosh

Argitaletxea: Minis

Ipuinak haur bat eta bere aitaren arteko harremana deskribatzen du. Aitak bere presentziarekin zelan jolasten duen erakusten digu, baina baita hauraren emozioak zelan jasotzen dituen edo haurra bere egunerokotasunean zelan tratatzen duen.



LAZKAO TXIKI

Idazlea: Joxantonio Ormazabal

Argitaletxea: Elkar

Adina: 12 urtetatik gora

Nor izan zen Joxe Miguel Iztueta, Lazkaoko

txikia? Eleberri honen bitartez, Euskal Herriko pertsonaia hau deskubritzeko aukera izango dugu. Abenturaz beteriko istorioa da, bertsoa eta Euskal Herriko historiaren hainbat pasarte batzen dituen.



KO
KO-
RI
KO
HEZKUNTZA
FAK
TO-
RIA

11:00-13:00

APIRILAK 14
MAIATZAK 12
EKAINAK 9

0-3
espazio
askea

JOLASERAKO ESPAZIOA

Familien elkargunea

Haurrentzako gune segurua

Mugimendu autonomoa eta jolas librea

0-3 urte bitarteko haurrak eta haien gurasoak/tutoreak.

Profesional baten bidelaguntza.

BAZKIDEAK 5€/haurra saioko • EZ-BAZKIDEAK 6€/haurra saioko

*Plaza mugatuak IZENA EMATEKO: www.faktoria.eus
webgunean edo 722 22 75 32 (Aritz) telefonora deituz.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Presente egon

Gaur egungo haurrak oso mimatuak daudela entzuten dut askotan eta haurren beharrak ikusita, nik kontrakoa dela esango nuke. Haurrak bere erreferentziatzko helduaren presentzia behar du, ahalik eta denbora gehien berarekin egotea. Gaur egun, aldiz, haurrek oso denbora gutxi pasatzen dute erreferentziatzko helduarekin.

Helduek dituzten bizitzak direla eta, zein bizitzeko etxetik kanpo lan egin beharrak, haurrak oso txikitatik eskolan ordu pilo bat pasatzera eramaten ditu. Beraien erreferentziatzko helduarengatik oso urruti. Lehen, haurrak eskolara behintzat 3 urterekin hasten ziren, gaur egun urtea bete aurretik eskolan daude.

Gainera, ondo baloratu behar da zer den haurarekin egotea. Helduak lanean etxetik kanpo hainbeste ordu pasatzen ditu, ezenez xerara heltzerakoan ez duen gogorik izaten haurren beharrak asetzeko eta, berarekin presente dagoen arren, ez da berarekin egoten. Zer da ordea presente egotea? Haurarekin egote hutsarekin ez du balio. Haurrek mugak behar dituztela askotan aipatu da zutabe honetan, eta presente egotearen bideetako bat da muga horiek ezartzea. Haurrekin arazoak ekiditeagatik, haien jarrera eta eskariei aurre ez egitea askotan ikusten da. Haurrak zerbait nahi du eta hain denbora gutxi egoten gara beraiekin, ezen eman egiten diogun. Modu honetan, haurrekin gauden arren, ez gaude presente eta ez gara ari haurren beharrak asetzen.

Presente egotea, haurren emozioen jabe izatea eta hauei hitza jartzea da. Presente egotea haurrekin jolastea da. Presente egotea haurrekin bere egunaz hitz egitea da. Presente egotea ipuin bat kontatzea da. Presente egotea haurrekin batera eta berak protagonismoa hartuz etxeko lanak egitea da, janaria prestatzen adibidez. Presente egotea elkarrekin plan bat egitea da.

Presente egotea haurren jarrera ikusi eta limiteak jartzea da. Presente egoteko gorputza eta burua haurrekin konektatzea beharrezkoa da, distrazioarik gabe, pantailarik gabe, denborak ihes egitea haurrekin harreman zuzena izanda. Helduok denbora gutxi daukagun arren, haurrek behar-beharrezkoa dute gure presentzia. Garapen egokia izateko, mimatu ditzagun apur bat gehiago gure haurrak eta, beraiekin gauden denbora gaudela, gutxi bada ere, kalitatezkoa izan dadin.

L		P	A	S	
A	E		P	T	L
	A			L	S
T	S	L	E		P
E	L		S	P	T
	P	T		E	A

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Pastela

SUDOKUJA

Maripurtzili atsegin zaion bizkotxoak honoko osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat olio, zorrotxo bat legamia, pota bat jogurt, limoi bat eta txokolatezko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?

Labirintoa

Zenbat urte bete ditu Pellozirik?

ASKARI OPAROA



DOMINOAN

Urtebetzeetarako oso aproposa den domino honek sei irudi ditu: banderatzkoak, kandela, tarta zatia, puxika, oparia eta zorion txartela. Bete lauki zuriak, bakoitzari dagokion irudia marraztuz.

SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura



Peru Hernando

JAIOTERRIA
LAUDIO (2002)

BIZILEKUA
LIMA (PERU)

BIDAIAREN XEDEA
GRADU AMAIERAKO LANA EGITEA
LIMAKO CENTRAL JATETXEAN



“Erabiltzen ez diren elikagaiak balioan jartzen ikasi dut Central jatetxean”

Munduko jatetxe onena izendatutakoan ari zara ikerketa lanean. Nola iritsi zara bertara?

Sorte pixka batekin eta unibertsitateak eta lagun pare batek eskua emanda. Unibertsitateak Centralekin harreman estua duela esan ahalko genuke aurreko beste urte batzuetan beste ikasle batzuk egon direlako bai praktiketan eta bai GRALa egiten. Aurreko urtean txokolataren inguruan ikastera joatea nuen helburu, baina Europa mailan estilo horretako lanak aurkitzea eta onartzea ez da erraza eta mexikon bukatu nuen hotelen munduan sartuta.

Aurten ere azken urteko proiekturako etxetik urrun joatea nuen buruan, eta aurreko urtean Centralen egondako ikaskide batek esan zidan kakaoari buruzko proiektu buru bila zebiltzala. Pixka bat aztertu ostean, Mater Inicativaren ikuspegia lan egiteko moduak eta filosofiak konbentzitu eta proiektu horretan aplikatzea era-

man ninduen. Pare bat elkarrizketa ostean, barruan geunden ni eta beste bi ikaskide eta orain Liman ari gara lanean.

Zer zaude egiten zehazki?

Proiektuaz oso harro nago eta benetan asko gustatuko litzaidake gehiago hitz egitea, baina konfidentziasuna dela eta, pixka bat mugatuta dut proiektuari buruz askatasun osoarekin hitz egitea. Pixka bat gainetik eta generikoki komentatzearen, Theobromen ikerketa eta garapen lanean nabil. Kakaoaz gain, Macambo eta Copoazu espezieen rebalorizazio gastronomikoa lantzen ari gara.

Konfidentziasun baldintza zorrotzetan ari zara bertan. Zergatik?

GRALa enpresaren batean egiten ari garen ikasleen egunerokoa dela esango nuke, baina egia da Centralen egindako karrera amaierako lanak orain arte ez dire-

la konfidentzialak izan. Aurtengo proiektuek ikuspuntu aldaketa nabaria daukate. Orain arteko lanen helburua Peruko osagaiei buruzko ikerketa historikoa edo horien aplikazioa izan da, aurtengoek, aldiz, garapen zientifiko eta salmentarako produktuen ikerketan daude askoz zentratuagoak.

Nolakoa da zure egunerokotasuna Central jatetxean?

Jatetxe batean lanean ari zarela esatean, burura etortzen zaizkizun lehenengo gauzak ordu sartzen ditugula eta lan erritmo arin eta estresantea daramagula da, baina esperientzia guztiz desberdina izaten ari da. Kakaoaren inguruko espazioa zaharberitzen ari zirenez eta prest egon arte praktikara gauzak eraman ezin izan nuen aurretiko ikerketa egiteko. Zabalduta ostean hiru langile geundenez, oso lasaia da gure arteko lanerako kudeaketa. Gaine-

ra enpresak askatasun eta laguntza handia ematen dizu zure lana aurrera eramateko

Zer irakaspen espero duzu ekartzea bueltan?

Gastronomia oso mundu zabal da eta sukaldari bakoitzak bere filosofia eta ikuspuntua dauka bizitakoaren arabera. Zorte handia izaten ari naiz, sukaldari eta pertsona askoren ikuspuntua ezagutzeko aukera izaten ari naizelako, eta ikasitakoa laburtzea oso zaila da. Azken finean, Peruko panorama gastronomikoa etxekoarekin guztiz ezberdina da; eta etxetik atera eta lehenengo postuko “sanguche”tik afari ostean bidean erosten duzun “yukita”ra ikasten ari zara. Baina pixka bat zehaztearen, Centralen filosofiatik ikasitako gauza nabariena inguruan hurbil ditugun osagaiak, erabiltzen utzitakoak eta oraindik erabiltzen ez diren produktuak baloratzen ikastea da.

PERU



DESKRIBAPENA

Andeen eta Ozeano Barearen artean kokatutako herrialdea da. Lima du hiriburu eta bertan aurkitzen da Central jatetxea, iaz munduko jatetxerik onena izendatutakoa. Virgilio Martinez y Pia Leon dira bertako sukaldariak, eta herrialdeko elikagai ezezagunak dituzte ardatz.

AZALERA

1.285.216 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

29,38 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Gaztelania, aimara eta kitxua.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA